

GURE PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Alaia Aizkorretak, Eider Arraztiok, Ander Arrietak, Naroa Beltranek eta Oihane Casamayorrek, Ostiko taldea osatzen dugu. Gure bizitzan zehar, gazteak garen horretan, bidaitzeko eta kultura berriak ezagutzeko beharra etengabe sumatu dugu. Egia da ekonomikoki egoera kaxkarra dugula gazteok, hortaz, arazo hau konpontzearen aldeko erabakia hartu dugu.

Gure enpresak hotel tematikoak eskainiko ditu Euskal Herrian zehar, hau da, Euskal Herritik atera gabe, urruneko herrialdeetako kulturak ezagutzeko aukera emango duten hotelak sortzea. Honela, detektatu dugun beharra asetzeko aukera emango diegu Euskal Herriko biztanleei, batez ere gazteei.